

EUSKAL LITERATURA GARAIKIDEA KRITIKA GENETIKOAREN ARGITAN: ARESTI, SARRIONANDIA, SAIZARBITORIA ETA ATXAGAREN IDAZLANEN SORKUNTZA PROZESUA AZTERGAI

Tesiaren egilea: Mikel Ayerbe Sudupe

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila: Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Tesi-zuzendaria: Maria Jose Olaziregi eta Aurélie Arcocha-Scarcia

Tesiaren laburpena:

Genesi eta idazketa-prozesuaren kontzeptuetatik abiatuz, Gabriel Arestiren, Joseba Sarrionandiaren, Ramon Saizarbitoriaren eta Bernardo Atxagaren idazlanen oinarrian dauden poetikak, sorkuntza-hausnarketak eta joera estetikoak azaleratu nahi izatea da ikerlan honen helburu nagusia.

Kritika genetikoak idazketa-irakurketa eta berridazketa-berrirakurketa prozesua ikertzea du xede. Idazketa-prozesua bera litzateke ikerketa korrante honen muina: «ikergaia ez da testu ekoitzia izango, testuaren ekoizpena baizik» (Grésillon, 1985). Hots, kritika-bide honek obra bat garatzeko beharrezkoa izan den sorkuntza-prozesua ikertu eta azaleratu nahi du, idazketa-garapeneko urratsak aztertuz eta interpretatuz. Ikerketa burutu ahal izateko, hautaturiko idazleen argitaraturiko lanak eta aurre-testuak izan ditugu aztergai. Aurre-testua, «behin betikotzat jotzen den testuaren aurreko lekukotzen nolabaiteko berreraiketa litzateke, metodo zehatz baten bidez kritikariak ezarria, jarraitutasunez irakurri ahal izateko objektu bihurturik» (Bellemin-Noël 1977).

Aukeraturiko euskal idazleen corpusa dela-eta, Arestiren kasuan *Mundu munduan* nobelaren idazketa aztertu da, *Oilarganeko etxola batean* aurre-testuarekin eta egilearen gainerako antzerki-lanekin eta ipuinekin erkatuz. Arestiren gutunak eta bestelako idazkiak ere ikertu dira. Sarrionandiaren kasuan, berrargitalpenetan txertaturiko etengabeko berridazketak eta aldaerak ikertu dira, bai poesiaren arloan baita ipuingintza aintzat hartuta ere. Bestalde, Ramon Saizarbitoriaren nobelagintzaren bilakaera eta garapena ikertu da *Egunero hasten delako*-ren azterketaren argitan. Lehenengoz 1969an argitaratutako eta berriki, 2007an, berridatzi eta berrargitaratutako lanaren azterketa genetiko zehatzak, aurre-testuen ikerketa sakonaren bidez, berridazketa horren baitan egon den prozesu sortzailea azaleratu du. Azkenik, Atxagaren ibilbide literarioari erreparatu eta idazlearen sorkuntza-prozesuetan berridazketek izan duten garrantzia nabarmendu dugu, argitaraturiko lanak zein aurre-testuak ikertuz.